

AZKEN-AGURRA AMA BIRJIÑARI.

Agur Jesus-en Ama,
 Birjiña maitia!
 Agur ichasoko izar
 Diztiazallia:
 Agur, Zeruko Eguzki
 Pozkidaz betia,
 Agur, pekatarien
 Kaya ta estalpia:

—
 Agur, gizonen Ama,
 Zeruko Erregiña,
 Ama gozo chit maite
 Amorezko piña!
 Zugandik juatea
 Gauza da samiña.....
 Agur, nere biotzeko
 Poz eta atsegiña....

Agur, gure poza ta
 Atsegiñ guztiya,
 Atsekabe danetan
 Gozakai eztiya!
 Agur, Birjiña eder
 Chit zoragarriya!
 Ar-zazu biotza ta
 Torizu biziya!...

—
 Baña zugandik alde
 Biyotzak ezin du;
 Zeregana dijoa,
 Zuga bizi nai du
 Birjiñ paregabea,
 Bedeinka nazazu:
 Agur, Ama nerea,
 Agur, agur, agur.....

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.

¡O MARIA!

¿Nolá Zutaz choratuko ez gerá
 Choratu bazan Jaungoikoa bera?...
 Zu gabe ez litzake Udaberririk,
 Zu gabe ez litzake lorechorik,
 Zu gabe ez litzake iñon pozik,
 Zu gabe ez litzake Euskaldunik,
 Zu gabe etzan izango ¡Jesusik!....
 ¡O Ama, Ama! diot biotzetik
 ¡Ez utzi galdzen gizon bat bakarrik!

ANTONIO ARZÁC.

1883-ko Maiatzean.